



Arartekoaren 2022R-1552-22 Ebazpena, 2023ko urtarrilaren 4koa. Horren bidez, Oñatiko Udalarari gomendatzen zaio azter dezala kexan salatutako bide publikoen erabiltzaileen segurtasunerako arrisku egoera, eta neurri egokiak har ditzala egoera hori konpontzeko.

Aurrekariak

1. Herritar bat Arartekoan kexatu da Oñatiko Berezaio industrialdean sartzeko bidean ez dagoelako segurtasunik oinezkoentzako, gehien bat, "Natra-Zahor" eta "Ceur" enpresak dauden bidearen tartean. Hortaz, ulertzen du han dagoen oinezkoentzako pasabidea konpondu behar dela eta araudian ezarritako baldintzak betetzen dituen espaloi bat eraiki behar dela.

Kexa idazkiaren arabera, 2979/2017/QC espedientea abiarazi zuten arazoak ez dira konpondu eta auzokideek ez dute oinezkoentzako pasabide segururik oraindik ere, inguruan ikastetxe bat egon arren eta bertatik haur asko igaro arren. Adierazi duenez, espaloia oso estua da eta ezin dira bi pertsona gurutzatu, hortaz, errepidetik ibili behar dira eta hori segurtasunerako oso arriskutsua da. Gainera, espaloia ez dago ondo eginda eta pertsona asko bertatik ibiltzea oztopatzen du. Horren ondorioz, jende asko lurrera erori izan da.

Era berean, herritarrak errepikatu du kamioi astunak aparkatzen eta deskargatzen dituztela espaloian bertan, eta orga jasotzaileak soinu zein argi seinalerik gabe zirkulatzen dutela. Gainera, interesdunaren arabera, espaloia dagoen tarteetan ibilgailuak egon ohi dira, txarto aparkatuta, hortaz, espaloia dagoen tarteetan ere oinezkoak errepidetik ibili behar dira.

Azkenik, adierazi duenez, Aranzazu kaletik sartzen diren ibilgailuentzako ere arriskutsua da, izan ere, deskargatzen ibiltzen diren kamioiek kurban behar bezala ikustea oztopatzen dute.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Oñatiko Udalarengana jo zuen azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzeko.

Era berean, 2979/2017/QC espedientean jasotako gomendioaren lehenengo puntua baino ez zenez bete (arriskuen azterlana egitea), Udalarari eskatu genion





gomendioaren beste atalei buruz hartu zuen erabakiaren inguruan berriz hausnartu zuen jakinarazteko.

Horretaz gain, informazio eskatu nahi dugu jakiteko ea arriskuak aztertu ondoren jarduketa gehiago egin ziren, edota neurri egokiak hartu ziren bermatzeko tarte horretako trafikoaren eta oinezkoen segurtasuna betetzen zela.

Eskaerari erantzuteko, Udalak adierazi digu, besteak beste, Arantzazuko Ama kaletik Berezaoko industrialdera doan oinezkoentzako ibilbidearen lehen zatia hesiz babestuta dagoela, eta ondoren, hormigoizko espaloï bat dagoela. Espaloia 2020an egin zen, eta plastikozko oztopo zutoinek mugatzen dutela, pertsonak arriskurik gabe igaro daitezzen.

Era berean, erakunde honi jakinarazi dio txarto aparkatuta dauden ibilgailuen arazoa (hau da, oinezkoak errepidetik ibiltzea eragiten duena) puntuala dela. Mezulariek eta garraiolariak eragiten dute arazo hori, eta Udalaren baliabideekin ahal den guztia egiten dute. Gainera, adierazi duenez, gutxitan bada ere, "Natra Zahor" enpresaren aparkaleku pribatura sartzeko edo irteteko, ibilgailuak pabiloiaren ondoan dagoen espaloitik igaro behar dira.

Horretaz gain, 2019ko arriskuen azterketaren ostean gune horretan hartutako neurrien berri eman digu (1,50 metroko zabalerako espaloia, zintarria eta 30 zentimetroko areka dituen; plastikozko zutoinak, espaloia mugatzeko; U formako hesiak, arrapalak dakarren arriskua ezabatzeko; eraikin horizontalak eta bertikalak, edo zebrabide altu bat).

Azkenik, Udalak jakinarazi digunez, hartutako neurrien jarraipena egiten da bermatzeko tarte horretako trafikoaren eta oinezkoen segurtasun araudia betetzen dela, eskura dituen baliabideak kontuan hartuta.

3. Ondoren, interesdunak Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkariaren idazki bat aurkeztu du. Bertan erakunde horretara zuzendutako erreklamazioaren erantzuna jasotzen da. Organo horrek, erreklamazioaren xede den hiri ibilbidea beharrezko irisgarritasun baldintzen arabera diseinatuta ez dagoela egiaztatzean oinarrituta, eta aplikatu beharreko araudian oinarrituta, honako hau adierazten du:

"se ofrece a dirigir un informe escrito a los servicios municipales instando a que este itinerario sea tenido en cuenta en el momento de actualizar el Plan de Accesibilidad Municipal existente, para que con ello sea incorporado en la correspondiente planificación de actuaciones y a





la vez sea consignado el correspondiente presupuesto para la subsanación de las deficiencias identificadas.

De la misma manera se llevará a cabo el ofrecimiento de este Consejo a asesorar en aquello que el Ayuntamiento precise para llevar a cabo la adecuación de este itinerario, así como a mantenerle informado sobre la posible existencia de líneas de subvención que se pudieran publicar en la materia, de cara a ver recogido este itinerario en el Plan de Accesibilidad vigente y a la ejecución de las obras necesarias para su adecuación.”

Gogoetak

1. Arartekoak 2979/2017/QC kexan bere jarduna amaitzeko emandako ebazpenean ([Arartekoaren 2018R-2979-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 4koa](#)) Oñatiko Udalari gomendatu zitzaion, besteak beste, kexaren xede den udalerriko oinezkoentzako bideetan oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna berma zezan, eta hartutako neurrien jarraipena egin zezan, kexa eragin zuen arazoa konpontzeko neurri egokiak zirela egiaztatzeko eta horien arabera jarduteko.

Nolanahi ere, kexagileak errepikatu du oraindik ez dagoela auzokideentzako pasabide segururik. Hala badagokio, kexagileak ikusteko dituen arazoek egoera hori larritzen dute. Gainera, adierazi duenez, ibilgailuentzako ere arriskutsua da, izan ere, deskargatzen ibiltzen diren kamioiek kurban behar bezala ikustea oztopatzen dute.

Udalak ez du ukatu pertsona horiek errepidetik ibili behar dutela txarto aparkatuta dauden ibilgailuen ondorioz, eta onartu du Natra-Zahor pabiloietako batean dagoen aparkaleku pribatura sartzen eta irteten diren ibilgailuak alboko espaloitik igarotzen direla, baina azpimarratu du arazo puntuala dela eta Udalak, eskura dituen baliabideekin, ahal duen guztia egiten duela.

2018R-2979-17 Ebazpenean ondorioztatu genuenez, kexa eragin zuen oinezkoen segurtasunari buruzko arazoa, erakunde honen ustez, Oñatiko Udalari esleitutako eskumenen barruan dago, hain zuzen ere, udalerriko hiri bideetan trafikoa antolatzeko eta bide segurtasuna bermatzeko.

Horretarako, Udalak diskrezionaltasun tarte handia du, eta horrek esan nahi du legezko ahalmena duela aukera posibleen artean egokiena deritzona hautatzeko,





ahalmen hori ematean ezarritako helburuak betetze aldera, betiere hori gauzatzeko mugak errespetatuz.

Nolanahi ere, Arartekoak uste du Udalak bide segurtasuna bermatu behar duela, orduan bezala, uste du orain ere eskumen horiek babesten dutela kexagilearen asmoa, hau da, Udalak jardun dezala interesdunak oraindik ere salatzen duen oinezkoen segurtasunerako arrisku egoeraren aurrean, eta neurri egokiak har ditzala egoera hori konpontzeko eta bide horretan bide segurtasuna eta trafikoari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko, arreta berezia jarriz kexagileak salatzen duen segurtasun faltaren arazoa nagusiki kokatzen duen tartean.

Gure aurreko gomendioan azaldu genuen bezala, herritarren eskubide subjektiboa dago segurtasun nahikoz bide publikoetatik ibiltzeko. Horrek barne hartzen du modu benetan eraginkorren neurriak hartzea, bide eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da aldeztu aurretik eta modu antolatuan ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioko kontrol eta erregulazio neurriak ezartzea, horrela, gune horretako enpresetan zerbitzuak ematen dituzten kamioen eta ibilgailuen trafikoaren arintasuna eta oinezkoen erabilera uztartu ahal izango dira.

Premisa horietatik abiatuta, erakunde honek uste du bere eskumenak baliatzeko eta udalerritaren eta herritarren beharrei erantzuteko baliabideak mugatzea ezin dela aitzakia edo eragozpen izan kexagileak 2017tik salatu duen segurtasun arazoa behar bezala konpontzeko, are gehiago arazoa konpontzeko eskumena udal horri dagokionean.

Arartekoak uste du positiboak direla gune horretan segurtasuna bermatzeko gaur egun arte egindako ahaleginak. Hala ere, bi alderdiek aurkeztutako dokumentazioa eta argazkiak aztertu ostean, erakunde honek ikusi du hobetzeko tarte dagoela oraindik gune hori seguruagoa eta irisgarriagoa izateko.

Horri lotuta, Arartekoaren ustez, zonako funtzioen eta bertatik dabiltzan oinezkoek eta ibilgailuek jasan ditzaketen arriskuak identifikatzearen eta baloratzearen ikuspegi integralak benetan eraginkorrak diren estrategiak lantzea ahalbidetuko luke, salatzen den segurtasunik eza arintzeko eta lehentasuna emateko bide segurtasuna bermatu ahal izateko jarduketara neurriei, eskura dauden baliabideen eraginkortasuna ahalik eta gehien baliatuz.

3. Kexagileak adierazitakoaren arabera, ikusgarritasun ezak bide segurtasunik ez egotea larritzen du, eta horrek lotu egiten ditu planteatutako kontua eta espazio publikoen irisgarritasuna.





Garrantzitsua da adieraztea Udalek udal jarduketa planak aurreikusi behar dituztela, dauden bide publikoak irisgarritasun arauetara egokitze aldera. Horri lotuta, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkariak bere idazkian adierazi zuenez, lau urterik behin, Udalek programak egin behar dituzte udalerrian bertan irisgarritasuna sustatzeko, dauden hiri inguruneak, espazio publikoak, eraikinak, garraioak eta informazio eta komunikazio sistemak pixkanaka Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean aurreikusitako irisgarritasun baldintzetara egokitzeko. Gainera, irisgarritasuna sustatzeko programak finantzatzeko, dagozkien aurrekontuetan barne hartu behar dituzte partida zehatzak, aurrekontuko baliabideak aintzat hartuta.

Arartekoak udalerriek gainditu behar dituzten finantziario arazoak berri du, baina dirulaguntzak daude irisgarritasun planak eratzeko eta eguneratzeko eta hobekuntza lanak egiteko, Udal horrek kexaren xede den hiri ingurunean irisgarritasuna bermatzeko.

Arazoaren alderdi horri lotuta, bereziki aintzat hartu behar da 68/2000 Dekretua (apirilaren 11koa, hiri inguruak, espazio publikoak, eraikinetako eta informazioaren eta komunikazioaren sistemak irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartu dituen) TMA/851/2021 Aginduari lotuta (uztailaren 23koa, irisgarritasuneko eta sarbidean ez diskriminatzeko eta urbanizatutako espazio publikoak erabiltzeko baldintza teknikoaren agiri teknikoa garatzen dituen).

Horrela, kontuan hartuta Oñatiko udalerriko azken Irisgarritasun Planaren eguneraketa 2019an egin zela, erakunde hau bat dator Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluko idazkariarekin, hau da, planaren eguneratze berriak kexak aipatzen duen eremua kontuan hartu eta aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen irisgarritasun baldintzen arabera diseinatzeko beharrezko irisgarritasuna sustatu behar da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Oñatiko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

1. Berezaio industrialdeko arrisku egoera azter dezan, hango bide publikoak erabiltzen dituzten pertsonentzako eta ibilgailuentzako gunean.
2. Trafikoa, zirkulazioa eta bide segurtasuna arautzen dituzten arauak errespetatzea berma dezan, baita irisgarritasun arauak ere, arriskuak saihesteko eta erabiltzaileak bideetatik seguru ibiltzea errazteko, batez ere erabiltzailerik ahulenak.
3. Hartutako neurrien bilakaera azter dezan, kexa eragin zuen arazoa konpontzeko egokiak ote diren egiaztatzeko, eta horren arabera jarduteko.

